



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Euskal lurraldea

Galdeketak bat. «Euskal lurraldea» hitzak aho-
ratu, eta zer datorkizu gogora? Hitzon soi-
nua non lekutzen zaizu, buruan ala gorpu-
tzean? Irudi jakin batera bidaiatzen al duzu?
Horrela egin baduzu, lurralde hori erreala da
edo espazio idiliko bat irudikatu duzu? Edo
kontzeptu abstraktuak ekarri dituzu burura? Pertsonen
aurpegiak gorpuztu dituzu? Orainean ala iraganean ko-
katu duzu? Bi hitzon arteko konbinaketan eta lehian, zerk
irabazi du zure ulermenean, «euskal» hitzaren euskaldun-
tasunaren identitate zentzuak ala «lurralde» hitzaren fisikota-
sunak? Joera identitarioarekin bat egin baduzu, «vasca» ize-
neko tipografiarekin idatzita irudikatu ote duzu? Gorria,
zuria eta berdearekin zipriztindutako kontzeptua iruditu
zaizu? Maila sinbolikoarekin zerikusian txertatu baduzu,
euskal ikonografia zabalarik lotzeko gaitasuna izan lezakeela
uste duzu?

Proba bat. Interneteko euskara-ingeles itzultzailean «eus-
kal lurraldea» tekleatu eta «*basque country*» emaitza irakur-
tzen dugu. Jakin badakigun arren, ez duela adiera horrekin
zerikusirik, aplikazioa «Euskal Herria» izenarekin nahastu
baita. Deigarria izan daiteke, gainera, «*basque country*» ira-
kurritakoan hitzen soina ez zaigula arrotza egin, ez jakin-
tza anglosaxoiaren barneraketa poliglota dugulako, baizik
eta «*basque country*» euskal gobernuak lurralde-marka gisa

erabiltzen duelako –«*i am basque*» lema jeltzalearen bertsio
gaurkotua–. Ildo beretik, euskal turismo agentziak «*basque-
tour*» du izena, hortaz, gure gorputzean «*basque*» hitza etxe-
ko gertatuko zaigu seguru. «Euskal lurralde» hitzek, berriz,
oraindik ere ez dute konnotazio merkantilistik, *branding*
egiteko «libre» dagoen izen horietarikoa da, eta izenaren
funtzio sinbolikoa ez da kapturatua, bereganatua izan. Ho-
rregatik, «euskal lurraldea» hitz binomioa, baliagarria zaigu
esanahiak eta iruditeriak eraikitzeko.

**Gogoeta bat. Euskal lurraldea irudi askok osatzen dutela
bistakoa den gauza da. Ez dago, hortaz, irudi bateratzai-
lerik, ez eta lurralde zati bat bestea baino esanguratsua-
goa denik ere.** Euskal lurraldea *collage* moduan aurkeztu
beharko litzateke, kostaldea, mendikatea eta lautadak, hiri
eta herri bizitokiekin, industrialak eta landatarra; lurraldea-
ren askotariko bizi esperientzia kontraesankorreireferen-
tzia eginez. Hitzei batzuetan egokitu nahi diegun helburu
handientsua baztertzea garamatza, ez baitu adostasun bat
bilatzen, baina, bai, oster, amankomunaren joera. Diberts-
itatean eta dinamikotasunean oinarritzean, akaso behin-
behineko esanahiez jantzi eta atxikimendurik gabeko esan-
gurekin eraiki beharko da euskal lurraldea. Ez da nolanahi-
ko ariketa, identitatearekin loturiko adierak bahituak geldit-
zen direlako, hitzak estu bihurtzen ditugulako. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA